

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea****Lanekoak ez diren tutoretzapeko praktiketarako diru-laguntzen emakidaren deialdia eta oinarri arautzaileak.**

Mankomunitateburuaren ekainaren 25eko 392/2018 zenbakiko Dekretuaren bidez, onetsi egin dira lanekoak ez diren tutoretzapeko praktiketarako diru-laguntzen deialdia eta diru-laguntzen emakida arautzen duten oinarriak, eranskinaren arabera.

Derion, 2018ko ekainaren 25ean.—Mankomunitateburua, Igotz López Torre



ERANSKINA

**GAZTEDI BIZKAIA TXORIERRI ERANDIO 2018 DEIALDIAREN BARNEAN
LAN-KONTRATURIK GABEKO TUTOREZAPEKO PRAKTIKAK
EGITEKO PERTSONAK HARTZEN DITUZTEN ERAKUNDEENTZAKO
DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK****1. Helburuak**

Deialdi honen xede diren diru-laguntzak prestakuntza eta enplegua lortzeko aukera ematen diete 18 eta 25 urte arteko Txorierriko gazteei. Hain zuzen, lan-munduarekin lehen harremanak edukitzeko aukera ematen diete, ordainduta eta tutoretzapean, enpresetan 6 hilabeteko praktikak eginez. Hauexek dira deialdiaren helburuak:

- Lehen enplegurako sarbidea erraztea.
- Txorierriko gazteen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea.

2. Erakunde onuradunak

Lan-kontraturik gabeko praktiketan pertsona bat hartu eta haren tutoretza-lanak egiteko gai den edozein erakunde, baldin eta legez eraturta badago. Praktikaldia gutxienez sei hilekoa izango da eta erakunde onuradunak aurrez ezarritako funtzio batzuk bete beharko ditu. Praktiketan hartutako pertsonak Txorierriko udalerrietako edozeinetan erroldatuta egon beharko du.

3. Kolektiboa

Erdi- edo goi-mailako prestakuntza akademikoa, arte- edo kirol-irakaskuntzetako goi-mailako titulazioa, profesionaltasun-ziurtagiria, gradua, diplomatura edo lizentziatura duten gazteak, 18 eta 25 urte bitartekoak, baldin eta langabezian eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda badaude. Gazteen Berme Funtsean izena emanda dauden pertsonentzako adina zabalagoa da, 30 urtera artekoa, baldin eta Biztanleria Aktiboaren Inkestaren bidez jasotako azken hiruhilekoko langabezia-tasa %20tik gorakoa bada, abenduaren 23ko 6/2016 LEDren arabera.

4. Beken deskribapena

- Beka kopurua: 6.
- Diru-laguntza jasotzeko hautagai izango dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan bidez lan-kontraturik gabeko pertsona bat hartzen dutenak, gutxienez 6 hilabetez eta 2018ko ekainaren 1etik 2018ko abenduaren 31era bitartean hasita.
- Bekaren iraupena: bekak gehienez 6 hilabetekoak izango dira.
- Bekaren zenbatekoa: 600 euro gordin/hilabete.
- Enpresek Gizarte Segurantzaren alta eman beharko diete tutoretzapeko lan-praktika horiek egiten dituzten pertsonari.
- Bekak 1543/2011 EDko (Enpresetan egiten diren eta lan-arlokoak ez diren praktikak arautzen dituena) xedapenei jarraituko die, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatuko du.
- Kasu guztietan enpresak egingo du praktiken tutoretza-lana.

5. Enpresetan lan-kontraturik gabeko tutoretzapeko praktikak egiten dituzten pertsonen bete beharreko baldintzak

- Loiun, Sondikan, Derion, Zamudion, Lezaman edo Larrabetzun erroldatuta egotea.
- Langabezia izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- 18 eta 25 urte artean edukitzea (biak barne), edo gehienez 30, baldin eta Gazteen Berme Funtsean izena emanda badago, oinarri hauen 3. atalarekin bat etorritik.
- Profesionaltasun-ziurtagiria, heziketa-zikloko titulua edo unibertsitateko titulua edukitzea.

**6. Araudi aplikagarria**

Oinarri hauek aplikatu eta interpretatzeko, kontuan izan behar da urriaren 31ko 1543/2011 EDan ezarritako araudi-esparrua (2011ko azaroaren 18ko BOE, 278. zenbaki).

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak izango du oinarri hauek eta horietatik eratorritako dokumentu guztiak interpretatzeko eskumena, Diru Laguntzen Ordenantza Orokorrekin bat etorritik (2006ko apirilaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 65. zenbakia), baita hori betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzekoa ere.

7. Bekaren zenbatekoa

bekaren zenbatekoa 3.600 eurokoa da eskaera egiten duen erakunde bakoitzarentzat, eta hileko 6 kuotatan emango da (bakoitzean 600 euro gordin).

8. Eskaerak aurkeztea

eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa oinarri hauen I. eranskinean (eskaera) zehaztutako formatuan aurkeztu ahal izango dira. Bekaren izapideak egiteko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak xede horrekin ezarritako «gazte tituludunentzako praktiken» prozedurari jarraituko zaio.

Eskaera egiten duten erakundeek, eskaeraz gain (I. eranskina), honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez lan-kontraturik gabeko praktikak eskatu dituztela justifikatzen duen agiria.

8.1. Aurkezteko lekua eta ordutegia

Eskaerak eta dagokion dokumentazioa helbide honetan aurkeztu beharko dira:

- Behargintza Txorierrri, S.L.
- Txorierrri etorbidea, 46, 13 A, Sondika.
- Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

8.2. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da (larunbatak, igandeak eta jaiegunak zenbatu gabe), oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskabidea ez da behar bezala aurkeztutzat joko egon daitezkeen hutsuneak zuzendu arte.

9. Diru-laguntza emateko prozedura

- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak ebatziko ditu eskaerak.
- Eskaerak lehia askean hautatuko dira.
- Eskaerei buruzko ebazpenak emateko gehieneko epea 15 egun baliodunekoa izango da, eskaerak aurkeztzen diren egunetik aurrera zenbatzen hasita. Diru-laguntzen eskaerak onartutzat joko dira epe horretarako ebazpenik eman ez bada. Edonola ere, administrazioak eskaerei buruzko berariazko ebazpenak eman beharko ditu.
- Laguntza emateko, funtsak egiaztagirien erregistro-ordenari jarraikiz banatuko dira, betiere deialdi honetarako ezarritako betekizunak betetzen badituzte, harik eta aurrekontu-kreditua amaitzen den arte.
- Posible den neurrian, eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik, ahalegina egingo da diru-laguntzak parekidetasunez emateko, emakume eta gizonen artean, hau da, sexu bakoitzekoak ez dira izango %60 baino gehiago, ezta %40 baino gutxiago ere. Bestalde, ahalegina egingo da emakumeak egoteko gizonezkoek hartutako esparruetan eta alderantziz.

**10. Egiaztagiriak aurkeztea**

Lan-kontraturik gabeko 6 hilabeteko praktikaldia amaitutakoan, laguntzen onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- II. eranskina. Justifikazioa.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako lan-kontraturik gabeko praktikei buruzko agiria, urriaren 31ko 1543/2011 EDari jarraikiz. Agiri horrek egiaztatu beharko du praktikak oinarri hauetan zehaztutako baldintzen arabera egin direla.
- Lan-kontraturik gabeko praktikak egin dituen pertsonaren NANaren kopia.
- Lan-kontraturik gabeko praktikak egiten dituen pertsonaren errolda-ziurtagiria.
- Txorierri bekaren ordainagiria (600 euro gordin hilabetez, 6 hilabetez).
- Banku-kontua egiaztatzen duen hirugarrenen fitxa (III. eranskina).

10.1. Aurkezteko lekua eta ordutegia

Diru-laguntzaren egiaztagiriak helbide honetan aurkeztu behar dira:

- Behargintza Txorierri, S.L.
- Txorierri etorbidea, 46, 13 A, Sondika.
- Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

10.2. Egiaztagiriak aurkezteko epea

Sei hilabete, praktikaldia hasten denetik zenbatzen hasita, eta 2019ko uztailaren 31era arte.

Egiaztagiriak ez dira behar bezala aurkeztuzat joko egon daitezkeen hutsak zuzendu arte.

11. Laguntza ordaintzea

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak ordainketa bakar bat (3.600 euro) egingo du eskaera bakoitzeko, egiaztagiriak aurkeztu ondoren, betiere egoki bete badira eta eskatutako dokumentuak aurkeztu badira, oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta baldintzei jarraikiz.

12. Erakunde onuradunen betebeharrak

- Oinarri hauetan zehaztutako baldintza guztiak betetzea.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez lan-kontraturik gabeko praktikak egiteko pertsona bat hartzeagatik diru-laguntza emateko baldintza eta eskakizunak jasan dezaketen edozein aldaketaren berri ematea, hala dagokionean.
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, enplegu eta sustapen ekonomikoko zerbitzuaren bitartez (EGAZ Txorierri), egokitzen jotzen dituen eta diruz lagundutako proiektuarekin zerikusia duten ikuskapen guztiak egin ahal izango ditu. Dena den, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez lan-kontraturik gabeko praktikak egiteko pertsona bat hartzeagatik diru-laguntza jasotzen duen erakundeak baime-na eman beharko du ikuskapenok egiteko.

13. Baldintzak ez betetzea eta beka itzultzea

- Erakunde onuradunek beka emateko arrazoi ziren baldintzetako bat, eskakizunetako bat edo betebeharretako bat hautsi badute, edota aurkeztutako datuen bat edo erantzukizunpeko adierazpenen edukia faltsua bada, galdu egingo dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez lan-kontraturik gabeko praktikak egiteko pertsona bat hartzeagatik diru-laguntza jasotzeko eskubidea, edo laguntza itzuli beharko dute, hala badagokio.
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak ebazpen bidez adieraziko du baldintza-zen bat ez dela bete, enpresa bazter utzi dela, diru-laguntza itzuli behar duela eta laguntzak jasotzeko eskubidea galdu duela, behar bezala arrazoituta.

**14. Aurrekontu-esleipena**

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak gehienez 21.600 euro emango ditu guztira oinarri hauean ezarritako diru-langutzetan, zehazki, enpresetan lan-kontraturik gabeko praktikak egiteko 6 beka izango dira.

15. Errekurtsoak

Emakidaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, eman zuen organo beraren aurrean, edo zuzenean inpugnatu administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren aurrean.

Ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurkeztutako berraztertze-errekurtsoaren ustezko ezespena eman arte edo berariaz ebatzi arte.

16. Datu pertsonalak babestea

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak jakinarazten du oinarri hauek izapidetzean sortzen den dokumentazioan adierazten diren datu pertsonalak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen titulartasuneko fitxategi batean sartuko direla.

Nolanahi ere, interesdunak horren berri izan du, eta ados dago bai bere datuak aipatutako helbururako erabiltzearekin bai aholkularitzei, erakunde publikoei, fundazioei, elkarteei edo finantza-erakundeei lagatzearekin, enplegu-politika aktiboak kudeatzeko, lan-merkatuko bitartekotza egiteko eta lan-merkatuaren azterketak eta analisiak gauzatzeko.



I. ERANSKINA

PARTE HARTZEKO ESKAERA

GAZTEDI BIZKAIA TXORIERRI ERANDIO 2018 DEIALDIAREN BARNEAN LAN-KONTRATURIK
GABEKO TUTORETZAPEKO PRAKTIKAK EGITEKO PERTSONAK HARTZEN DITUZTEN
ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERA

.....
..... jaunak/andreak (NANzk.:),
bere izenean edo
enpresaren (IFK:; egoitza soziala:
.....;
PK:; Udalerria:; Telefono-zen-
bakia:)
gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

- I. Ezagutzen duela lan-kontraturik gabeko praktikak egiteko pertsona bat hartzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri berrien edukia.
- II. Ordezkaten duen erakundeak oinarriek eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela, eta horietan adierazitako betebeharrak guztiak beren-berregi onartzen dituela.
- III. Oinarri horiekin bat egitea eskatzen duela, lan-kontraturik gabeko praktiketarako diru-laguntza jasotzeko, urriaren 31ko 1543/2011 EDri jarraikiz.
 - Eskatutako lanpostua:
 - Eskatutako profila:
 - Hasiera-data:
 - Diru-laguntzaren xede diren lan-kontraturik gabeko tutoretzapeko praktiken iraupena:

Eskaera honekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu da:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez lan-kontraturik gabeko praktikak eskatu dituela justifikatzen duen agiria.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua

**II. ERANSKINA
JUSTIFIKAZIOA**

GAZTEDI BIZKAIA TXORIERRI ERANDIO 2018 DEIALDIAREN BARNEAN LAN-KONTRATURIK
GABEKO TUTORETZAPEKO PRAKTIKAK EGITEKO PERTSONAK HARTZEN DITUZTEN
ERAKUNDEEK DIRU-LAGUNTZAK JASO AHAL IZATEKO EGIAZTAGIRIAK

.....
..... jaunak/andreak (NANzk.:),
bere izenean edo
enpresaren (IFK:; egoitza soziala:
.....;
PK:; Udalerria:; Telefono-zen-
bakia:)
gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak),

HONAKO AGIRI HAUEK AURKEZTU DITU:

- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako lan-kontraturik gabeko praktikei buruzko agiria, urriaren 31ko 1543/2011 EDari jarraikiz. Agiri horrek egiaztatu beharko du praktikak diru-laguntzen deialdiaren oinarrietan zehaztutako baldintzen arabera egin direla.
- Lan-kontraturik gabeko praktikak egin dituen pertsonaren NANaren kopia.
- Lan-kontraturik gabeko praktikak egiten dituen pertsonaren errolda-ziurtagiria.
- Lan-kontraturik gabeko praktikaren ordainagiria (600 euro gordin hilabetean, 6 hilabetez).
- Hirugarrenen fitxa (III. eranskina).

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



III. ERANSKINA

KONTU-ZENBAKIAREN TITULARTASUNA JUSTIFIKATZEN DUEN HIRUGARRENEN ALTAREN FITXA. GAZTEDI BIZKAIA TXORIERRI ERANDIO 2018 DEIALDIAREN BARNEAN LAN-KONTRATURIK GABEKO TUTORETZAPEKO PRAKTIKAK EGITEKO PERTSONAK HARTZEN DITUZTEN ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERA

Hartzekodunaren agiria
Ficha Acreedor

Hartzekodunak bete beharreko datuak / Datos a cumplimentar por la parte acreedora			
Izena eta deitura bi edo Sotietatearen izena / Nombre y dos apellidos o Razón Social			
Helbidea / Domicilio			
Herria / Población		Probintzia / Provincia	PK / CP
NAN - IFK / DNI - CIF	Telefono / Teléfono	Faxa / Fax:	
e-mail			
(lugar)	(año)	(mes)	(día)
n, 20 (e)ko k			
Hartzekodun edo ahalduaren sinadura, / Firma de la parte acreedora o apoderada			

Banka helbideratzeak / Domiciliaciones bancarias			
1	Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularra goian adierazitakoa dela. Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.		
Zergaren sarrera edo itzulketa helbidaratu nahi duzun finantza erakundea: / Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto:			
IBAN kodes / Código IBAN			
E	S		
Herria / Población		Probintzia / Provincia	PK / CP
(lugar)	(año)	(mes)	(día)
n, 20 (e)ko k			
Sinadura eta banketxearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria			
2	Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularra goian adierazitakoa dela. Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.		
Zergaren sarrera edo itzulketa helbidaratu nahi duzun finantza erakundea: / Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto:			
IBAN kodes / Código IBAN			
E	S		
Herria / Población		Probintzia / Provincia	PK / CP
(lugar)	(año)	(mes)	(día)
n, 20 (e)ko k			
Sinadura eta banketxearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria			

Agiri hau alita edo aldarazpenik dagoenatan bakarrik erabiliko da. / Este documento se utilizará únicamente en los casos de alta o modificación. NANren edo IFKaren fotokopia erantsi behar da. / Debe adjuntarse fotocopia del DNI o en su caso del CIF. Bi kontu baino gehiago duen hartzekoduna izatekotan, erantsi beste inprimaki bat. / Caso de parte acreedora con más de dos cuentas añadir otro impreso.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa bezela, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten dizu, dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu haren sartuko diregula, ondoren, erabili ahal izateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, horako helbide honetara jo dezakezu.

En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Economía y Hacienda, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstas por la Ley.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua